

## **ZARAUTZ / Nazioarteko prentsa zerbitzua jarri dute martxan liburutegian**

**Satelite bidez jasoko dituzte 60 herrialdetako egunkariak eta paperean inprimatuta izango dira irakurgai**

O. Prat

Zarauzko Udaleko Kultura Sailak nazioarteko prentsa zerbitzu berria eskainiko du liburutegian. Munduko egunkariak izena du ekimenak eta Liburutegiak topaleku izeneko kanpainaren barruan kokatzen da. Nazioarteko egunkariak kontsultatzeko interesa dutenei zerbitzu baliagarria eskaintzea da helburua. Zerbitzua librea eta doakoa izango da, Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso baitu ekimenak.

### **Osorik goiz-goizetik**

60 herrialdetako 200 aldizkari eta egunkari 30 hizkuntzatan eskuratzeko aukera ematen du zerbitzu honek, eta goizero, munduko edozein txokotako egunkariak paperean osoki eskuratzeko aukera emango du.

Liburutegiak satellite bidezko teknologia erabiltzen dute argitalpenak jasotzeko eta, ondoren, pdf formatuan inprimatuko dituzte. Honetarako inprimagailu berezia erosi du Udalak eta paper birziklatua erabiliko dute.

### **Erabilpen ugari emango diote**

Gaur egun Zarauzko Liburutegiak hainbat herrialdetako 20 egunkari inprimatzen ditu astero, etorkinek, turistek eta trukeko ikasleek euren herrialdeetako albisteen berri izan dezaten. Bestalde, hizkuntza-ikasleek ikasten ari diren hizkuntzak praktikatu ahal izango dituzte.

Horretaz gain, aurreko egunetan inprimatutako egunkariak ikastetxeei eskainiko dizkiete.